


Astekaria

# BARREN

elgoi



## Eliza berri bat Malarako

### SOLOZABAL AUTOESKOLA



Toribio Etxeberria, 5 - 1. ☎ 70 23 84 - EIBAR

### GARRAIOLARI IKASTAROA

(Martxoaren 16a arte)

IBILGAILU MOETA GUZTIAK  
Motorra • Automobila  
Kamioia • Trailerra  
Autobusa • Remolkea



**ZATOZ!!**

Gorputza prestatzeko garaia da

# Garbiñe

## EDERGINTZA

GOPUTZ GUZTIKO  
DEPILAZIOAK

- Beroa
- Temperatura bajukoa
- Elektrikoa
- 

AURPEGIKO  
TRATAMENDUAK  
ETA MAKILAIK

- Kateobital
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketak
- 

GORPUTZEKO  
TRATAMENDUAK  
MANIKURA-PEDIKURA

- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masajeak
- Paparreko liftina

## SOLARIUMA

P. M. Urruzuno, 27 - ☎ 74 31 32 - ELGOIBAR

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak**

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igualatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guuzti hau  
Eibarren bertan  
urrutirago joan  
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11  
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)  
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala

#### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

#### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

#### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua

#### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

#### MAKETATZAILEA:

Maite Rementería

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

#### ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

#### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrique Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Ohiana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Agur Pako

**E**lgoibarko euskal munduak asko zor dio Pakori. Euskal munduan nolabait mugitu ginanok, Pako izan genuen argi-izpi, motor, eta enbor. Besteok Pakoren inguruan hasi ginen zerbait egin nahian.

Eta hemen dioguna, betidanik azaldu eta aitortu dugu. Honen adierazgarri, orain urtebete pasatxo Udalari Itziar Ajuria, Jesus Larrañaga, Sabin Osoro eta lauok bidali genion ondoko idatzia:

“Elgoibarko Izarra eta Ikastolaren aldetik omenaldi hunkigarria jasotakoak gara gutun hau sinatzen dugun lauok. Zilegi bekigu, beraz, jarraian datorrena jakinaraztea eta, aldi berean, eskatzea.

Euskalgintzak Elgoibarren izan dituen iharduera gehienak berrogeitamargarren hamarkadan dauzka bere zainak. Askok ez baginen ere, lanez eta gogoz antolatu genituen antzerki, jaialdi, bertso saio, mendi irteera, euskaltzale bilkurak eta abarrak. Haien fruitu izan dira bai Elgoibarko Izarra eta bai Ikastola bera ere. Gu lauok bakarrik jaso dugu, ordea, omenaldia.

Zuzentasun eta egiaz hitzegin behar bada, ez ginen gehiegi baina bai gehiago. Batez ere beste bat. Iluntasun

hartako argi bakarra bera izan zen. Gizon hori Pako Juaristi izan zen.

Bera gertatu zitzaigun enbor eta geu adar. Elgoibarko Izarra eta Ikastola, horietako bi adar besterik ez dira izan. Gu horietxek zaintzen nabarmendu gara, baina enborrik gabe ez da adarrik. Gure ekintzen oinarrian Pako Juaristi motorra izan zen. Guk, adarrek eskainitako eskerrak jaso ditugu, baina enborrari ez dio oraino inork eskertu.

Gizalegekoa da, bai Pako Juaristiri eta baita isilpean aritu zen beste hainbati ere, eskerrak ematea. Eta hori Udalari dagokio. Gainera ez letorkiguke batere aldrebes, hain sakabanaturik gabiltzan garaiotan, euskal munduaren alde zerbait egin dutenak eta egiten dihardutenak ezagutze bidean elkartzea.

Pako Juaristi Jaunari, justizia eta merezimenduzko eskaintza zor diogu denok eta horretxan antolaketa bidera dezazuen eskatzen dizuegu azpian sinatzen dugun lauok.”

Udalak onartu eta zerbait antolatzekotan ari ginela, betirako joan zaigu Pako. Bien bitartean mila zor eta mila esker Pako. Gero arte.

**Felix Etxeberria**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

• "Legezkoa al da kolektibo bat erregistratuta ez egoteagatik Kultur Etxeko lokal bat ez lagatzea zerbait antolatzeko?" kultura Batzordeko teknikariarekin egon gara eta erregistratu gabe dauden hainbat taldek Kultur Etxeko lokalak hilero erabiltzen dituztela erantzun digu



## KEXAK

• Guraso batek deitu digu Polikiroldegiko kantxaz kexatzeko. Euria egiten duenean itukina sortzei da eta lurra oso labainkor jartzen omen da. "Norbaiti zerbait larria pasa arte ez omen dugu ezer egingo eta gero beranduegi izango dela" esan digu. Bukatzeko, markagailua aipatu digu: dotorea bai baina apenas zuzen dabilen.



## TXALOKAK

• Baserritar batek deitu digu Elgoibarren egiten den hilaren bukaerako feria txalotzeko. Euskal Herriko gainontzeko herri gehienetan ohitura galdu den bitartean, hemen hilero-hilero hutsik egin gabe segitzen dugu. Gainera, aitortu digunez, asko poztu omen da BARREneko langileak ferian ikusteaz eta baserriari buruzko gehigarria ateratzeaz.

# ESKUTITZAK

## maNIPulazioa

Jakingo duzuenez, akaso ez, Maltzaga-Urbina autopistaren egitasmoa dela eta, NIP-IGP (Nucleos de Intervención Participativa-Interbentzio Gune Partehartzaileak) modelo ezarri du Eusko Jaurlaritzak, lan honetan GIZARTEAZ-L.E.S. enpresa kontratatu duelarik.

Joan den urrian sujerentziak aurkezteko buzoiak zabaldu zituzten herrietan eta nik, autopistaren kontra gauden bailarako beste hainbat kidek bezala, egin beharrezkoak egin nituen nire iritzia azaltzeko. Elgoibarko Udaletxean zabalduko buzoian nire inpresoa sartuz, sinismen gutxirekin bazen ere. Geroztik ez nuen inolako erantzunik ezta abixurik ere jaso, ondorioz prozesutik eliminatua izan nintzela ulertu nuelarik. Baina hara non Lucio Ugartek -NIP-etako zuzendariak- ustekabean deitu didan iragan martxoaren 4ean (NIPen prozesua amaitzeaz dagoenean, bi aste besterik geratzen ez baitira), nere sujerentzia zeraman papera "bidean galdu" zenaren berri emateko. Eta NIPen azken txanpan, Elgoibar eta Gasteizen

burutuko diren azken saioetan soilik, partehartzera gonbidatu nau.


Sinistu behar al dut nire papera, eta Elgoibarko gazte Asanbladarena ere, bestalde, bidean "galdu" egin zirela? Ez al da bada NIPetan "teknologiarik aurreratua", e.a. erabiltzen? Ez ote izango Elgoibarko Udaletxeak berriz ere bideak moztu dizkigula, kasu honetan instituzioek beraiek ezarritako mekanismotik baztertzeko? Galdera hauek datozkit burura une honetan.

NIPekiko nire nolabaiteko ezadostasuna birbaieztatu besterik ez du egiten gertaera honek. Izan ere, Maltzaga-Urbina autopista proiektua onartezina izanik, NIP ereduak egitasmo txikitzaile, desarroilista eta zentzugabe honen inguruan kontsentsua bultzatzea du helburu.

Kontua da, berriro ere, politikariek herriari informazio zabala eskaini beharrean, gatazka edo konflikto posibleen beldurrez horrelako muntaia despilfarradoreetara jotzen dutela, beraien aurpegi sasi-demokratikoa garbitzeko, gauzek berdin -beraien eskuetan- jarrai dezaten maNIPulatuz.

Arantza Etxeberria

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**A**ste honetan **Maite Vallejo**k laga digu erretratu. "Erretratu zaharra" orrialdearen ardura daukagunok ere, gure agurra egin nahi izan diogu joan berri den **Pako Juaristiri**.

Erretratua 1954. urtean Andazarraten ateratakoa da. Patxi Lizarralde esan digunez, ospitaleko gaixoentzako teatroa egitera joan aurretik ateratakoa omen da.

Patxiren arabera, orduko antzerki taldea osatzen zutenetarikoz batzuk dira erretratuan azaltzen direnak. "Odeioa" egin arte Maalako ospitalean izaten omen ziren antzerki emanaldiak eta beti norbaitentzat diruz ateratzeko antolatzen ziren. Euren ez omen zuten txakur txikirik jasotzen.

Elgoibarren ezezik kanpora ere askotan irten omen ziren beraien lanak antzeztera. Garrantzitsuena aipatze-

ko esan diogunean, Bilboko Arriagan izandakoa dela aitortu digu.

Bukatzeko, Pakori buruzko bi hitz eskatu diogu Patxiri: "Beste batzuek ere izango ziran, baina nik dakidala Pako izan zan teatru asuntua Elgoibarren mobitxu izan zabana."

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak: Goitik eta ezkerretik hasita,

**Jose Juaristi, Itziar Ajuria, Conchita Armendia, Miren Vallejo, Karmentxu Iriondo, Mari Tere Elkorro-Iribe,...**, **Jesus Mari Etxeberria, Agustin Arriola, Tomas Garcia, Dimas Gil eta Angel Iriondo.**

Makurtuta, ezkerretik hasita:

**Jose Zubiaurre "Balle", Luis Santolaia, Pako Juaristi, Maite Vallejo, Patxi Lizarralde eta Migel Sanchez.**



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA  
BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

# Eliza berri bat Malarako

**“Kristau elkarte berri bat eraiki behar da Maalako auzorako”. Jose Maria Setien Gotzaiaren hitzak dira hauek eta bere desioa Maalan eliza berri bat eraikitzea zerbitzu guztiekin. Gaur egun Maalarako proiektu urbanistiko berria, eta beraz, eliz-elkarte berria sortzearena ere bai, geratuta dago bi pertsonaren arteko auzi konponezina dela eta.**

**K**ristau elkarte bat ezin da sendotu azpiegitura eta zerbitzu egokirik gabe, Maalako Kultu-ebanjelizaziorako zentruaren arduradun den Jose Luis Bellosoren ustetan. San Lazaro egoitzaren kapera txora meza entzutera joateko Maalatarren ohitura aspaldikoa da, eta pastoraltzari dagozkion zerbitzu gehienak ere martxan daude aspalditxotik: konfirmazio taldeak, aisialdirako taldeak, kristau ikasbidea eta lehen jaunartzea, gaisoak zaintzeko taldea... Maalako kristau elkarteak pastoral mailan parrokia izateko baldintzak betetzen dituen arren, juridikoki ez da oraindik parrokia, eliza bat falta zaiolako. Horregatik Maalan ez da hildakoen, jaiotakoen eta abarren zerrenda artxibatzen.


## Eliza bat Maalarako

Maalako eliza berria Pedro Muguruza Etorbide-

---

**Eliz gizonen artean ezaguna den esaera batek, zera dio: “elizdorrea ikusten ez den tokira ez da haren eragina heltzen”.**

---



■ ■ San Lazaroko kaperan, 90 lagun eserita sartzen dira.

ko “Alba” izeneko fundizioa dagoen lekuan kokatzen du duela zortzi bat urte egindako hirigintza proiektuak, haserako proiektua beste bat bazen ere. Udaletxera aurkeztutako proiektu honek, lur azpian, garrajeentzako bi solairu eraikitzea aurreikusten du eta gainean, enparantza bat eliza batekin.

Udaletxean duela zortzi bat urte aurkeztutako proiektuak Maalako auzoa itxuraldatuko duen hirigintza plana aurreikusten du. Maala inguruko lur sail

handi bat Teodoro Alkortaren jabetzakoa da eta eliza eraiki behar den lur saila berriz, “Alba Fundizio”koa, Aladino Amaroren jabetzakoa. Bi gizon hauen arteko ulertu ezinak abokatuen eskuetara helarazi du auzia eta proiektua erabat geldiarazi du. Akordio batera heldu ezean, proiektuak ez du aurrera egingo. Dena den, bi enpresa gizon hauek peritajearen emaitzak dioenari kasu egin beharko diote.

## Finantziarioa

Eliza berriak egin izan direnean Gotzaitegiak bere gain hartu izan du eraikuntzaren finantzaketaren zati bat. Maalako elizarekin ere berdin izango litzateke. Eraikuntzaren beste zatia ordaintzeko herri osoan diru eskea egingo litzateke, horrela erabaki baitzuten 1992. urteko urrian. Maalako eta San Bartolome elkarteek ohizko diru sarrerak banatuta eramango zituztela eta horretarako ekonomia batzorde bana izango zutela erabaki zuten. Obrak eta horrelako gastuetarako, ordea, bat egitea erabaki zuten.

Udalak, bere aldetik, ez luke ekonomikoki eraikuntzan parte hartuko; zaharberritze prozesuen finantziarioan bakarrik sartuko litzateke. Udalaren aportazioa, lurrarena izango litzateke. Udalak, herri ekimenerako lur sail izendatu zuen "Alba" fundizioko lurra. Maalako auzoa erresidentzia



■ ■ Eliza berria egin arte, San Lazaro egoitzako kaperan ospatu beharko da meza.

---

**Eliza berriak 400 pertsonarentzako lekua izango luke.**

---

zona bihurtzeko asmoa zegoenez, bertan eliza eraikitzea erabaki zen.

### Elkartearen ardura

Gotzaiak San Bartolome parrokiako apaizei Maalako barrutiaren ardura hartzea proposatu zien. Haseran ezezkoa jaso zuen Gotzaiak eta honek frantziskotarren lagundikoak ekarriko zituela

adierazi zien. Frantziskotarrak, ordea, Errenderira joatea erabaki zuten eta Pagola bikarioak Jose Luis Belloso-ri proposatu zion Maalako ardura. Gaur egun, Maalako kultu-ebanjelizaiorako zentruaren arduraduna Jose Luis Belloso da eta aldaketarik gertatu ezean, parrokia egiten dutenean ere, berau izango da arduraduna.

## Arrazoi objetiboak

**Z**ergatik parrokia bat Maalako? Galdera honi erantzuteko zenbait arrazoi objetibo eman dizkigu Jose Luis Belloso. Ba omen dago esaera bat "eliz dorrea ikusten ez den tokira ez da haren eragina haltzen" dioena. Elgoibarren ere hori gertatzen omen da. Elgoibar luzetara hedatu den herria da eta San Pedroko auzotarrei oso urrun geratzen zaie San Bartolome parrokia. Izan ere, azken urteotan San Pedro auzoko emakumeak Maalako kultu-ebanjelizazioarako zentruan katekista lanetan jardutea lortu da.

San Lazaro egoitzako berritze lanak egin zirenean, kaperara txikituta egin zuten eta lehenago kabitzen zirenen erdiak baino ez ziren kaperara berriantze kabitzen. Obrek iraun zuten denboran Herriko Antzokian eman izan zen meza. Arazoak gehitzen joan ziren mezatarak joaten zuten pertsonen kopurua gehitu zenean. Tajuzko eliza behar zen. Honen adibide da sapatuetan bi elizkizun

egin behar izana, bata 7,30etan eta bestea, 8,30etan. Belloso esan digunez, urteurrenak eta antzerako ospakizun bereziak tokatzen direnean, ez da jende guztientzat lekurik egoten. "Bataioak, esaterako, bakarka egin behar izan ditugu beti, bataiatutakoaren sendia justu justu kabituta izan delarik. Hiletak egitea, noski, ezinezkoa da; ez litzateke apenas jenderik kabituko".

Eliza berriak 400 pertsonarentzako lekua izango luke, San Bartolome elizak baino 200 leku gutxiago, gutxi gora behera. Astegunetarako meza egiteko kaperara txiki bat egongo litzateke. Eliza horretara egokituko lirateke, beraz, Maalako barrutian dauden auzo eta kaleak: San Antolin, Sallobente, San Pedro, Artetxe, Maala, Ermuaranbide eta Pedro Muguruza, alegia. 3000 auzotar dira guztira. Gainera, plan urbanistiko berri horren arabera, jende asko Maalara bizitzera etorriko omen da.

**UDA BERRI**  
ELGOIBAR

**Txiriboga**  
**Taberna**  
GOSARIAK, PINTXOAK  
ETA OTARTEKOAK  
Plaza merkatua 23-24

**I LEA PA IN DE G I A**  
**FADEK**  
SOLARIUM  
Errosario Kalea, 35 behe  
☎ 74 26 92 Elgoibar

**JOSE ANGEL ZABALA**  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

## ASTE HONETAN

# Maltzaga-Urbina IGPen partaide baten ikuspuntutik

**S**ekula ez nuen entzun IGPei buruzko ezertxo ere, etxera eskutitz bat bialdu zidaten arte. Inkestak edo halako zer-bait egiteko lan bat zela pentsatu nuen. Asuntua zertaz zen esan zidate-nean interesgarria iruditu zitzaidan eta parte hartzea erabaki nuen, lehenago, ez baitziguten inoiz gai honi edo antzerako beste edozeini buruz gure iritzia eskatu.

Ez neukan Maltzaga-urbinari buruzko informaziorik baina IGPa horretarako dago, informazioa emateko. Eta eman ere. Hortxe geunden 25 "ezezagun" informazioa jasotzen Maltzaga-Urbina ardatzi buruz eta honek ekar zitzazkeen ondorioei buruz. Argi dago Deba Garaian konpondu beharrezko arazo bat dagoela. horrelako proiektu batean gauza asko kontutan hartu behar dira. Zer da konpondu behar dena?

- Bailerako barruko trafikoa, edota errepide azkar batetik pasatzen den trafikoa deitutakoa.

- Trazatu berriko errepide azkar bat egin behar da edota dagoen errepidea konpondu edo desdoblatu.

- Kontutan hartu behar den beste gauza bat zera da: trazatu berri bateko errepidea garestiagoa izango litzatekeela eta ingurugiroarekiko eragina ere kaltegarriagoa izango litzatekeela.

Baina egitekotan, zein dirurekin ordaindu beharko litzateke? Eta zer

egin: autopista ala autobidea? (Autobideak lotune gehigo ditu autopistak baino). Diru publikoarekin ala diru pribatuarekin, eta gero erabiltzen duenak ordaindu (peajea) ala ez?

Gauza hauek eta beste batzuek argitu eta eztabaidatu ondoren bakoitzak gure iritzia eman genuen. Ni oso pozik nago IGPetan parte hartu ahal izan dudalako eta azkenean giro polita sortzen baita.

Uste dut beste gai batzuk eztabaidatzeko ere osatu daitezkeela IGPei deituriko taldeak, esaterako, seguritate soziala eta irakaskuntza eztabaidatzeko. Esperientzia benetan interesgarria izan da.

Ea Eusko Jaurritzak kasu egiten digun.



ENCARNI MIGALES  
"IGP"etako parte hartzailea.

**HISPANIA**  **ZURICH**

**C. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08





## Zer dakizu Maltzaga-Urbina errepideari buruz?



**RAMON ETXANIZ**  
53 urte, langabetua

Egunkarian irakurri dut zerbait eta nire ustez, ekolojistek dute arrazoia. IGPak Arrasaten egon direla ere badakit; orain Elgoibarren daude.



**VICENTE ESTEVEZ**  
49 urte, forjako langilea

Ez dut ezagutzen. Komentario batzuk entzun ditut baina hortik aurrera, ezer ez. IGP direlako horiek ez dakit zer diren.



**PURI MARTINEZ**  
48 urte, etxeoandrea

Ezin dut ezer esan, ezer ez dakit eta. Zerbait irakurri eta entzun dut eta IGPen berri ere badaukat, baina ezer gutxi.



**JUAN CARLOS LAGO**  
27 urte, administraria

A8ko peajea luzatu nahi dute Maltzaga-Urbina autopista egiteko eta, gainera, hemen ere peajea jartzeko asmoa dute. Oso gaizki iruditzen zait.



**ELENA PEÑA**  
28 urte, administraria

Zerbait egin behar dutela entzun dut, baina ez daukat idearik ere zer den. Egunkarian ere sekula ez nau erakarri albiste horrek.



**MIREN ZUBIZARRETA**  
39 urte, administraria

Oso ondo dago errepidea egitea Gasteizera doan bidea gaizki dago eta. Libre izatea gustatuko litzaidake eta hiritarren iritzia jasotzea ere ondo dago.

**MAHAINGURUA**

# "Sexu diskriminazioa"

**PARTAIDEAK**

Pilar Larrañaga  
Eduardo Osoro  
Nati Garitano  
Iñaki Elustondo  
Ana Artetxe  
Luis Bilbao

**MODERATZAILEA**

Itziar Fernandez

**Martxoak 17, osteguna  
Arratsaldeko 7etan.  
KULTUR ETXEAN**

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.



LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ Ikastolak hezkuntz proiektua plazaratu du

San Bartolome Ikastolak hezkuntz proiektu bat osatu du eta egunotan ezagutzera eman du komunikabideetan. Bertan hezkuntzaren esparru guztiei buruzko Ikastolaren filosofia agertzen da. Proiektu hau ikastolako irakasleak, Junta erretoraren oniritziak eta gela bakoitzeko bi ordezkari bilduta sortzen den guraso Gizarte Kontseiluaren partaidetza burutu da. Ikastolak Elgoibarko egoerari erantzuteko gai izan behar den proiektua osatu du, kontutan hartuta herriaren egoera ekonomikoa, ingurune natural eta urbanistikoa eta euskal hiztunen kopurua. Euskararen erabilera kalean bultzatzea funtsezkoa da Ikastolaren filosofian eta, atzerriko hizkuntzen arloan, ingelesa lau urtetik hasiko dira irakasten.

## ■ Misioetako tonbolako zenbaki sarituak

Hauexek izan dira San Lazaro egoitzak urtero egiten duen misioetako tonbolan sarituta ateratzen diren zenbakiak eta hauei dagozkien sariak:

Izarak (2.702), mantelak (3.558) maleta (1.393), toalla (6.699), kafetera (3.907), figurak (2.018), mantelak (1.349), gizonezkoen erlojua (5.297), emakumezkoen erlojua (4.938), franezlako izarak (1.495), irrati-erlojua (4.933), kasete (3.232), irrati (2.652) eta edalontziak (6.977).

## ■ Datorren hilaren 18an, odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 18, ohizko odol ateraldiak egingo dira herriko Odol Emaileen Elkartearen. Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen talde bat Pedro Migel Urruzuno 8ko lokalean izango da. Harrera arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte izango da.



**Emakume langilearen eguna** ospatzeko joan den astebukaeran antolatu ziren ekintzetako bat da argazkiko liburu erakusketa hau. Elgoibarko Andraize Emakume Taldeak antolaturikoa izan zen, eta honekin batera beste hainbat ekintza burutu ziren astebukaeran eta astean zehar ere bai. Aipatzekoa da, igandean Kimetz elkartearen burututako bertso bazkaria eta astelehenean EHUKo irakaslea den Nati Abrilek emandako hitzaldia.



## ■ Elgoibartar emakumezkoen kuadrila

honek joan den asteburuan "Martxoaren 8"ko ospakizunen barruan Donostian burutu zen Lilaton lasterketa ezagunean parte hartu zuen. Lasterketa ezagun honetan emakumeek bakarrik korritzen dute eta festa eta erreibindikazio giroan, 4 bat kilometrotako ibilbidea egiten dute hiria zeharkatuz. Elgoibartik 15 emakume animatu ziren korrika egitera, argazkian 13 baino agertzen ez diren arren. Egun oso polita igaro zutela esan digute eta datorren urtean ere, berriro emakumeen izenean egiten den lasterketa honetan izango direla adierazi digute.

**Elgoibarko Lagun Taldeak** Plaza txikiko arkupeetan egoitza berria inauguratu zuen joan den larunbatean. Estreinaldian, elkarteko eta Federazioko ordezkariak, herriko alkatea, Udaletxeko zinegotziak, Haritz Dantzari taldea eta Udal Txistulari taldea izan ziren. Parrokoak lokala bedeinkatu eta gero, bertara hurreratu zirenek, lokala ikustatzeko aukera izan zuten. Txirrindularien egoitza berriak bizikletak gordetzeko eta arropentzako biltegia, bulegoak, konponketa tailerra, aldagelak, dutxak eta bizikletak garbitzeko txokoa dauzka. Lokalaren berritze lanak Udalak burutu ditu eta barruko aldearen egokitzapenaren gastuak Lagun Taldeak ordaindu ditu. Egokitzapen lanetan 2 milioi gastatu ditu Lagun Taldeak eta urteko aurrekontu osoa, berriz, 5 milioitakoa da. Elkartearen ordutegia arratsaldeko 6etatik 8etara bitartekoa izango da, astelehenetik ostiralera bitartean.



**Herri Eskolak antolatutako jaialdi erakusketa** ikustera hurbildu ziren guztiek jai giro politean igarotzeko aukera izan zuten larunbata. Goizeko 10,30etan ateak ireki zituen eskolak bertako arlo ezberdinak bisitatu ahal izateko. Kanpoan ere izan zuten zertaz gozatzeko aukera. Herri eskolako irakasle eta ikasleek futbol partidua jokatu zuten, eta txikienei begira, bi gaztelu puzgarri jarri zituzten egun osoan zehar.



## ■ Zuhaitz eguna ospatuko da larunbatean

Larunbatean, hilak 12, zuhaitz eguna ospatuko da. Herriko ikastetxeek hainbat zuhaitz landatuko dituzte Mintxeta aldean Guillermo Garate, Kultura Batzordeko lehendakaria, buru dutelarik. Haurrek Udaleko brigadako kideen laguntza izango dute zuhaitzak landatzeko. Diputazioak emandako zuhaitzen landaketa goizeko 9,30etan hasiko da eta Mintxetan ezezik, beste toki batzutan ere landatuko dituzte.

## ■ Berpizkunde garaiko musika kontzertua

Datorren hilaren 18an, ostirala, berpizkunde garaiko musika kontzertua izango da San Bartolome elizan gaueko 10etan. Kontzertuan Xabier Dominguez-ek Sacabuchea joko du, Juan Ramon Ulibarrik cornetto-a eta Jose Luis Francesena azpeitiarrak organua. Hiru musikari hauen doinuei Itxaropena abesbatzak jarriko die ahotsa. Zuzendari lanak Nerea Ugartek egingo ditu.

## ■ Euskal Eskola Publikoaren III. festa

Datorren igandean, hilak 13, Euskal Eskolak publikoak III. festa ospatuko du Lasarteko hipodromoan eta Herri Eskolako gurasoen elkarteak bertara joateko dahainiko autobusak jarriko ditu. Irteera goizeko 9,30etan izango da Pedro Muguruza eskolatik, Maalako kioskotik eta Sigmako zubitik. Festa honetan umeak izango dira protagonista nagusiak. Bukaeran lau pertsonentzako Euro-disney-rako hiru bidaia, bizikletak, musika ekipoak eta Ford auto bat zozketatuko dira.

## ■ Manos Unidasen argazki erakusketa

Datorren hilaren 12, 13 eta 14an Manos Unidas elkarteak antolatutako "Asia Gaur" izenburuko argazki bilduma egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakustaretoan. Argazki bilduma hau gosearen aurkako kanpainari buruzkoa da eta argazkiak, izenburuak dion bezala, Asiako herrialde ezberdinetan ateratoak dira. Bisita ordutegia ohizkoa izango da. Astegunetan, arratsaldeko 7etatik 9ak bitartekoa eta jaiegunetan, eguerdiko 12etatik 2etara bitartekoa.

## ■ Filatelia elkartearen batzar orokorra

Elgoibarko Filatelia elkarteak batzar orokorra ospatuko du datorren igandean, hilak 13, goizeko 11,45etan lehen deialdian eta 12,00etan bigarren deialdian. Batzarra, merkatu plazako bigarren pisuan izango da eta ondoren, materiale sorta ederra zozketatuko da batzarkideen artean.

## ■ Hilaren 15ean, kontsumitzailearen eguna

Datorren hilaren 15ean, astearte, kontsumitzaileen nazioarteko eguna ospatuko da eta Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunak, UCEk, interes ekonomiko eta sozialak babestea, kontsumitzaileen funtsezko eskubidea dela gogorarazi nahi du. Iaz Gipuzkoako Kontsumitzaileen bulegora heldu ziren kontsulten %12ak banku eta aurrezki kutxeekin zerikusia zuten. Horregatik UCEk disposizio legal ezberdinak bete daitezzen eta komisioen kibraketa ondo egin dadin bijilatzea gomendatzen du, besteak beste.

## Datorren hilaren 17an emakumeari buruzko mahaingurua izango da



Datorren astean, hilaren 17an, ekimen berri baten lekuko izango gara herritarrak. Lehen aldiz, herritarrez osatutako eta herritarrentzako eginiko mahainguru bat antolatu du Elgoibarko Izarraren baitan sortu berri den Kultur Iharduera Taldeak. Gaia, martxoan nagusi izan den bat: emakumea.

Euskara hutsean burutuko da mahaingurua. "Elgoibarko Izarrak bultzatutako ekimena izanda, ezin zitekeen beste modu batera izan" adierazi digute Kultur taldeko kideek. Aurten hasi da lanean taldea, lau hilabete eskas daramate aurtengorako programazioa prestatzen. Asmoen artean "orain arte Elgoibarko Izarrak zituen ekintza kulturaleri jarraipena eman, herriko eskaintza kulturala gehitu eta herritarrak protagonista bihurtzea" leudeke. Urteko programazioa mahainguru batekin hasiko dute; datorren asteko ostegunetan izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Sei herritar mahai baten bueltan jarriko dituzte sexu diskriminazioari buruz jarduteko. Hizlariak Nati Garitano, Pilar Larrañaga, Ana Artetxe, Eduardo Osoro, Iñaki Elustondo eta Luis Bilbao izango

dira. Moderatzaile lanetan, Emakunde elkarteak idazkari nagusia den Itziar Fernandez elgoibartarra arituko da.

Mahainguruak herrian pil-pilean dauden gaiei buruz izango dira. "Kalean, etxean, kafetegian edota lagun artean tratatzen diren gai horiei buruz hitz egin nahi dugu", azaldu digute Kultur Taldeko kideek. Gaiak proposatzerako orduan, gaien zerrenda erabat irekia dagoela jakinarazi nahi dute eta "edozein elkartek edo pertsonak bere proposamena luza diezaguke, guk gusturaz jasoko dugularik".

Momentuz Kultur Etxean burutuko dira mahainguruok. Hizlariak beti elgoibartarrak izango dira eta jendeak gaiak proposatzeaz gain, mahainguruetara ikusle gisa joateko aukera izango du.

Elgoibarko Izarraren baitan dagoen Kultur taldeak urtean zehar lau mahainguru burutzeko asmoa dauka. Urteko egitasmoaren barruan mahainguruak ezezik, antzerkiak, lehiaketak, argazkiko hitzaldiaren estilokoak eta "Ez dok amaitu" izeneko saioa burutzeko asmoa dute.

## Bost intsumiso elgoibartar epaituko dituzte

Joan berri den aste honetan, hemendik eta ekainera arte epaituko dituzten bost elgoibartarren artetik, lehena epaitu dute Donostiako auzitegi probintzian. Antonio Lozano elgoibartarraren epaiketara joateko Elgoibarko Talde Antimilitaristak autobusa jarri zuen eta 60 bat pertsona joan ziren. HBko zinegotziek lekuko izan ziren eta Lozanok 150 autoinkulpazio aurkeztu zituen epai-learen aurrean. Elgoibarko Talde Antimilitaristak manifestazioa egin zuen Donostian epaiketaren aurkako jarrera erakusteko. Fiskalak 18 hilabeteko gartzela zigorra eskatu du Lozanorentzat. Sententzia, hilabete barru ezagutuko da.

### Epaiketen aurkako mobilizapenak

Talde Antimilitaristako ordezkariek, joan den larunbatean egin zuten lez, manifestazioak eta antzerako ekintzak egiten jarraituko dutela adierazi zuten epaiketak izango diren sasoian.



Antonio Lozano gaztea, ekainera arte epaituko dituzten bost gazteen artean, lehendabizikoa izan da. Apirilaren 12an Alejo Rojo Andres epaituko dute OZZri (Ordezko Zerbitzu Soziala)ri uko egiteagatik. Arrazoi berberagatik epaituko dituzte apirilaren 19an Aitor Esnaola Iriondo eta

Ivan Esnaola San Sebastian elgoibartarrak. Azken elgoibartarraren epaiketa ekainaren 21ean izango da eta epaitua Luziano Arregi Garcia izango da. Datozen hilabeteotan elgoibartar gehiago epai ditzaketela adierazi zuten Antimilitaristek, Elgoibarren 50 intsumiso inguru baitaude.



**Elgoibarko bi Institutuak,** Batxilergoak eta Lanbide Eskola, elkar lanean ari dira hezkuntza Proiektu amankomun bat burutzen, irakasle, guraso eta ikasleen partaidetzaz. Testuinguru honetan elkarrekin egiten ari diren bilera eta saioen artean, joan zen ostegunean, hilak 3, arratsaldean Antoni Zabala, Irakaskuntzaren Erreformako kataluniar ikertzaile ospetsuaren (argazkian) elkarrizketa-hitzaldi saioa izan zen Lanbide Eskolako aretoan, Deba bailarako irakasle ugari bertaratu zelarik.

### ■ Irratsaio berriak Zazpiki irratian

Zazpiki lau saio berri estreinatuko ditu. Igande goizeko 10etan "Gazteen Txokoa" izeneko musika saioahasiko da. Eguerdiko 1etan, beste musikal baten txanda izango da, "Burutik Gaizki". Arratsaldeko 3etan Gazte Asanbladako kideek ordubeteko saioa egingo dute eta hauen ondoren beste musikal baten txanda, "Txorixo aurpegi" izeneko. Beste berrikuntza bat ostiral gaueko "Bakarrik bakardadean" bakar-hizketa saioa izango da. Gaueko 10,30etan hasiko da eta ordu erdiko iraupena izango du. Honez gain, larunbat honetan hilak 12, C.D. Elgoibarrek jokatu duen partidua zuzenean emango da. Bestetik, Zazpiki irratiak antolatutako zozketan, 640tik 670ra bitarteko zenbakiak baliogabe geratu dira. Hauetako errifarrik edukiz gero deitu 74 34 74ra (3etatik 5etara).

## Demetrio Gonzalez:

# "Konpetentzia egoteak izan du eraginik postan"

**Elgoibarko postetxean 12 pertsona daude lanean. Zuzendaria Demetrio Gonzalez da, Zamoratarra jaiotzez, duela hogeit hamar urtetik hemen bizi dena. Posta zerbitzua aldatzen ari dela**

**azaldu digu. Aurrerakuntza mekaniko eta informatikoez gain, epe ertain batera erabat autonomo izateko asmoa dute, gobernuen inolako partehartzerik gabe.**

**- Nola banatzen duzue lana?**

-Batzuk jendea atenditzeaz arduratzen gara: eskutitzen irteerak prestatu, zertifikatuak egin, urjenteak... Gero, banatzaileak daude. Horiek, jasotzen dugun guztia biltzen dute, klasifikatu eta herrian banatzen.

**- Eskutitzak garaiz iristen al dira?**

-Euskal herrian bertan egun batetik bestera, epea amaitu aurretik bota bada buzoian, noski. Atzerriari dagokionez, Europara lau bat egunetan iristen da, Amerikara heltzeko astebete behar du, eta herri txikiak badira gehiago. Orain postal-spres izeneko teknika berria jarri dugu martxan, premia handia duten eskaerak ahalik eta azkarren iristeko. Batzuetan izaten da atzerapenik. Estatu mailan 60.000 langile pasatxo gara eta gure erruak ere izaten ditugu. Halere, udaletxeak duela pare bat urte egin zituen aldaketak (kaleen izenak eta portalen zenbakiak) badirudi jendeak oraindik ez dituela erabat ezagutzen, helbide asko gaizki iristen baitzaizkigu eta horrek, logikoki, atzerapenak eragiten ditu.




---

### "Erabat autonomo izan nahi dugu, inoren menpe egon gabe"

---

**- Postari berriak eta kanpokoak etortzeak ere izango du eraginik, ez?**

-Bai, noski. Halere, guztiek daukate dagokien eremuaren mapatxo bat eta lankideen artean ere laguntzen diote elkarri, beteranoek berriak direnei behin baino gehiagotan lagundu izan diete eskutitz eta paketeak banatzen.

**- SEUR, MRW eta antzeko enpresen aurrean, zer?**

-Konpetentzia dira, dudarik gabe. Postalgoa asko aldatu da. Lehen ez zegoen beste aukerarik, eskutitz bat bidali nahi zuena gugana etortzen zen

eta kitto. Orain, zerbitzu berriak daude eta horien aurrean gure jarrera ere moldatu da. Badakigu gugana ez bada, beste batzuegana joan daitezkeela. Eskaeraren arabera zerbitzua egokitu behar dugu, hori da gure lana.

**- Garestia al da eskaintzen duzuen zerbitzua?**

-Garestia iruditzen al zaizu eskutitz bat Kanariasek bidaltzeagatik 29 pta ordaintzea? Bueno, enpresa batzuek beraien exportazioak postaz egiten dituzte eta horiek, Asiara bidaltzean, adibidez, 20.000 ptako gastua egiten dute. Baina kontuan izan

behar da 20 kiloko pisua duten igorpenak direla.

**- Haurrekin ere egin izan duzue zerbait, ez?**

-Ikastetxeen ekimena izan zen, postaren mundua umeei hurbiltzearen. Postetxera etorri ziren eta eskutitza buzoian sartu ondoren nora doan eta zer gertatzen den azaldu genien. Orain, komiki bat ere argitaratu da, funtzionamendua era argi eta erraz batez kontatuz.

**- Autonomoak izan nahi duzue, ez?**

-Bi urtetik hona erakunde autonomo bat gara, baina gure asmoa erabat autonomo izatea da. Guk geuk berreskuratzea dirua, gobernuaren dirulaguntza gabe, beraien menpe egon gabe. Denbora bat pasa beharko da hori lortu aurretik, noski.

**- Elgoibarren izaten da zigilu berezirik, ez?**

-Bai, San Anton egunean. Herriko pertsonaia ezberdinen irudia isladatu izan da beraietan: San Bartolome, Mazantini, Antonio Arrillaga, aurtan Urruzuno... Seiluak benetan bitxiak dira. Isabel II.a erreginaren garaian erreal batzuk baino balio ez zuen bategatik gaurregun milioiak ordainduko litzuke bildumazale batek.

# Txiki **BARREN**

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 1. GEHIGARRIA



Haurrak izango dira gehigarri honen protagonistak. Beraiek parte hartuko dute eta eurei zuzendua izango da. Gai eta pertsonaia diferenteei buruzko iritziak eta guk egingo dizkiegun galderei erantzun ezberdinak emango dizkiete eta denborapasak ere izango dituzte bertan. Hilean behin, lau orrialde hauetan umeak eta beraien ingurukoak isladatuko ditugu. Azaleko argazkian ikusten dena San Bartolome Ikastolako liburutegia da. Batekin hasi behar eta Ikastolari tokatu zaio BARRENEko kamararen lehenengo biktima izatea. Datorren hilean Pilar edo Herri Eskolaren txanda izango da.

## *Esatera zaharrak*


Izakeraz elkarren antzeko samarrak diren bi pertsoneri zuzentzen zaie esatera hau.

### **Adibidez:**

Beste denak matematikako ariketak egiten ari diren bitartean, Imanol eta Eneko txiste kontatzen ari dira.



Irakaslea konturatzen da eta zera esaten die:



**A ZER PAREA  
KARAKOLA ETA BAREA!**



## Jakitunen eskutik

### Nola piztu haurrengan irakurtzeko zaletasuna

**O**raindik gogoan ditut amarekin izandako tira-birak afaltzeko orduan nere mutur aurrean berakatz-zopa platerkada uzten zuenean. Haiek ziren negarrak! Behin baino gehiagotan orduak pasa nituen plateraren aurrean eserita baina, amak inoiz ez zuen lortu nik zopa jatea.

Zenbait umek problema bera dute irakurketarekin: ez zaie irakurtzea gustatzen eta, horietako batzuek, urteak pasatu arren, ez dute gustokoa izango. Hau da onartu behar dugun lehendabiziko kontua.

Eta, zer egin dezakegu irakurzaletasuna sortzeko?

Irakurketa umeengana hurbiltzea, erakargarria bihurtzea eta umeek pozik, eta inoren agindupean egon gabe, irakur dezatela izan behar dira jorratu behar ditugun helburuak.

Horretarako umeek irakurtzen dutena eta beraiek irakurtzen duten

moduan irakurri behar dugu; liburuaren luzeera, zailtasuna, marrazki gutxi edo gehiegi dituen eta abar ahaztuz.

Irakurtzea gustatzen ez zaionari beste zeezer gustatuko zaio, txoriak adibidez. Eskaini diezaiogun txoriei buruzko liburuxka bat eta seguruenik gustura irakurriko du. Lehenengo pausua emanda dago.

Bestalde, eta zoritxarrez, Udal eta eskoletako liburutegiak gure laguntzailerik handienak izan beharrean, liburuen biltegi huts bilakatu zaizkigu. Dударik gabe liburutegiak irakurzaletasunerako oso baliabide garrantzitsuak izan daitezke, bertan ume, irakasle zein gurasoentzako ekintzak burutuz. Eta, zer esanik ez, eskoletako liburutegiek eta udaletxeek elkarrekin lan egingo balute.

Guzti hau gudan ondo errotu arte afaltzeko orduan berakatz-zopa asko hoztuko da mahai gainean.



**GUDRUN PEREZ ABAD**  
IRAKASLEA

## Ze iritzi daukazu *langabezia* ri buruz?

*"Nere ustez langabezia gaizki dago, baina denok gara errudunak, ez politikoak bakarrik."*

ESTHER AJUBITA ALDAZABAL. 10 urte

*"Langabezia oso lagun txarra da. Inori ez diote lanik ematen, ezta dirurik ere. Nik ez diot zentzurik hartzen."*

SAIOA ALKORTA LEIARISTI. 10 urte

*"Lana edukitzeko, ongi egin behar da lan. Lana ongi eziteko, aurkitu den lanerako balio behar. Eta ez da erraza."*

KOLDO SORALUZE. 10 urte





**Laura**  
Agirregomezkorta  
1. maila

## Galde debalde

1. Zein da asteko egunik txarrena? Eta onena?
2. Gehien gustatzen zaizun ikasgaia? Eta gutxien?
3. Nobioa al daukazu?
4. Gustura egiten al dituzu etxeko-lanak?
5. Gustura joaten al zara eskolara?
6. Gezurrak esaten al dituzu?
7. Gaiztoak al zarete umeak?
8. Musika talde bat?



**Usua**  
Arriola  
8. maila

1. Txarrena astelehena eta onena igandea edo.
2. Gehien ipuinak irakurtzea. Guxtien plastilinarekin jolastea, aspertu egiten naiz.
3. Ez. Txikiegia naiz.
4. Bai, kopiak bidaltzen dizkigute, idazten ikasteko.
5. Bai, lagun asko dauzkat.
6. Batzuetan.
7. Bai, piska bat.
8. Bonbontxip

1. Onena larunbata, hobetoen pasatzen dudalako eta txarrena astelehena, asteko lehenengo eguna dalako.
2. Gehien gimnasia eta gitxien gizarte.
3. Lagun batek badaka, baina nik ez, gaztia naiz.
4. Bueno... egunian ordu bat pasatzen dut tareak egiten eta batzuetan astuna izaten da.
5. Batzuetan ez, baina normalian bai.
6. Ez. Bueno batzuetan bai, esan behar direnean...
7. Asko bai, baina gaiztuak ez txarrak.
8. Musikia ez jata gehiegi gustatzen, gutxi entzuten dot.

## Zein da.....Argiñano.....?

**ADANTXA ADANO 7 urte**



"Ihauterietan perrexilez jantzi zen eta sukaldari ona da."

**EDUARDO CORDOBA 7 urte**



"Telebistan azaltzen den sukaldari umoretsua da."

**IRATXE GARATE 7 urte**



"Sukaldari oso ona da eta janari onak egiten ditu. Zarautzen egiten du lan."

**MIKEL ETXANIZ 7 urte**



"Kozineroa da. Getarian barko bat du. Argiñanok bizarra dauka eta arrantzale ona da."

**OIER OÑEDERRA 7 urte**



"Oso sukaldari trebea da. Gauza asko egiten ditu: tomateak, saltxitxak... Ah! pastelak ere egiten ditu."

**ANDONI ARDUABARRENA 7 urte**



"Sukaldari oso ona da eta janari oso onak egiten ditu. Zarautzen bizi da."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu Iñaki eta Jeniferri beraiek erantzun hau emateko?

.....  
 .....?

### IÑAKI IGLESIAS

"Ni azul-marinoz jantziko nintzake. Trajearekin, prakak, txaketa eta pajarita. Alkandora zuria eta zapatak, beltzak. Ez, txapela ez naban jantziko."

### JENNIFER CHAPARRU

Soineko txuri luzearekin, baina lurreraino ez, hankak ikusteko moduan. Bueloa eta kola ez oso luze batekin. Buruan sonbreroa eta lorak ere bai. Eta zapatak, txuriak.

## 3. Asmakizunak:

■ Matxin dut izena eta saltoka ibiltzen naiz, ez naiz oso gizona baina azkar eta arina bai.


Zer da?.....

■ Hilero-hilero jaiotzen naiz berria, eta jaten ez dudan arren gau batzutan nago bete.

Zer da?.....

■ Loretan zuri txikitan berde, gaztetan gorri, aguretan beltz igarri ezetz?.....

## 4. Zenbat lauki daude? .....



Erantzunak hurrengo astean aurkituko dituzu " Merkatu Txikia"ren orrialdean

## Ibon Basalo

### "Miren"

### arrandegikoa



- **Bakailaua, pil-pilean ala Guassean?** ▶ Pil-pilean.
- **Intsumisioa ala objezioa?** ▶ Intsumisioa, arrazoi etikoengatik.
- **Orokorrean, okela ala arraina?** ▶ Arraina.
- **Arrainik gozoena?** ▶ Sapua.
- **Eta politena?** ▶ Salmonetia.
- **Ezkontza, elizatik ala zibila?** ▶ Zibila.
- **Jairik gogokoena?** ▶ San Bartolome jaixak, astelehenian.
- **Arrain urdina ala zuria?** ▶ Urdina.
- **Zein izan da zure urterik onena?** ▶ 1986, arraindegixa zabaldu naban urtia.
- **Horoskopoa irakurtzen al duzu?** ▶ Ez.
- **Gizonak ala emakumeak, zeintzuk dira lagunik onenak?** ▶ Danetakuak. Izan leike bai gizon bat edo emakumia. Hori segun eta ze puntu hartzen diozun pertsoniari.
- **Neska bati esango zenizkiokeen hiru hitz polit?** ▶ "Tia buena", bi badira ere... Ez naiz piropo zalia.
- **Zenbat arraindegi daude Elgoibarren?** ▶ Bost, neretzako nahikuak.
- **Nola hasi zinen arraindegian?** ▶ Lana behar zan eta posibilitadia ikusi naban.
- **Denbora librean kainabera bizkarrean hartu eta arrantzara al zoaz?** ▶ Ez. Denbora librean lo.
- **Maniatikoa al zara?** ▶ Ez, ez det uste.
- **Zein izan da egin duzun azken txorakeria?** ▶ Azkenengua aspaldi egin naban. Akaso kotxia domeka goiz batian hartu eta Andorrraraino jun.
- **Otik 10era puntuatu Elgoibar herri bezala.** ▶ Lau t'ardi.
- **Zeini emango zenioke 10ekoa?** ▶ Elorrixori.
- **Beldurtzen al zaitu heriotzak?** ▶ Ez, momentuz ez.

EDU SANZ

## DIRULAGUNTZAK EUSKARARI

### DOINUA

Amodioa gauza tristea

Hizkuntza zaharrak izan nahi luke gaurko nere hizpidea. Aspalditxoan lardaskatu da urratutako bidea, iturri berak hamaika zulo agortu da ubidea; enbor zaharrak iraun nahi luke nork dauka irtenbidea? bere kimuek ez ote dute hazteko eskubidea. (bis)

Dagoeneko ehun mila bat bildu zaizkigu aldera, beste hainbestek izan behar luke horretarako aukera; borondate ta eskubideak ahaztu dituzte gainera, guregan daude asmoak baina beraiena da kartera damutu aurretik pentsa dezagun: "Euskera" gabe zer gera? (bis).



IZASKUN ELIZBURU

**Kuadrillakoren bat ezkontzen bada,  
adiskideren baten urtebetetze eguna bada,  
edo beste edozein arrazoirengatik norbait **ZORIONDU** nahi baduzu, espazio hau erabil dezakezu.**

**GALDETU GURE PREZIOAK KONDROMEZURIK GABE.**



## Ezindu fisikoentzat arrapalak

Minusbalidoentzat arranpalak jarriko dituzte herrian. Proiektua onartu berri da eta espaloietan jarriko dituzte aipaturiko arranpalak ezindu fisikoek erreztasunak izan ditzaten. Horrezaz gain, ibaian ere izango da obrarik, izan ere, isurbideak egingo baitituzte. Julian Juaristi izango da bi proiektu hauen arduraduna.



## Merkatu plazako azotea isteko proiektua egingo da

Inazio bereziartua Musika Eskolako dantza taldeak egunero erabiltzen du aipaturiko tokia, bertan 323 ikasle aritzen direlarik. Azotea irekita egoteak asko baldintzatzen du bere erabilera, euria eta haize bortitza direla eta. Haritz Euskal Dantzari taldeko arduraduna den Jose Inazio Sarasuak azaldu zuen lokala egokitzeko beharra. Asmoa merkatu plazako goiko aldea bi gela eta terraza batean banatzea da, proiektua Luis Ulacia arkitektoaren esku utzi delarik.



## Leku-Ederreko parkearen ordainketa

Construcciones BRUES S.A. enpresari 13.023.302 pta ordaindu zaizkio Leku-Eder-eko parkea egiteagatik.

# Elgoibar-Azkoiti errepide berriaren kostua igo egin da


**Elgoibartik Azkoitira joango den errepide berriaren lehen faseak igoera nabarmena izan du kostu aldetik. Terrenoaren ezegonkortasunaren ondorioz, batez ere, haserako proiektua eraberritu behar izan da gastua 400 milioi pasatxo igo delarik.**

1992ko otsailaren 17an Construcciones Galdiano S.A. enpresari eman zitzaion errepide berria egiteko proiektuaren lehen faseko kontratua. Ekainaren 29an Diputatuaren kontseiluak 2.233.503 ptan utzi zuen kontratuaren zenbate-

koa.

Azken boladan suertatu diren ustekabe batzuen ondorioz, terrenoaren ezegonkortasuna dela eta, proiektu eraberritu bat idatzi behar izan da, premiazko irtenbideak eman asmoz. Irtenbide horiek gastua asko igotzen dute, 400 milioitik gora, hain zuzen ere. Lehen fase honen aurrekontua 4.000 milioikoa izango da eta Construcciones Galdiano S.A. enpresak 2.500 milioi jasoko ditu.

Obrak burutzeko epea 1994ko martxoaren 31 arte luzatuko da eta kontratudunak 17 milioiko fidantza jarri beharko du.



## UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Jose Mari Galdos

▲ **ADINA:** 62 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Administrazio teknikaria eta ordezkari idazkaria.

▲ **FUNTZIOA:** Lana banatu eta eskutitzen ardura, parteak sail ezberdinetara bidali, tramiteak nola egin behar diren esan, alkate, zinegotzi eta langileak aholkatu, bizilagunei informazioa eman, boletinak irakurri, pleno eta gobernu batzordetara joan eta akta jaso,

informeak idatzi, artxiiboak zuzendu...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1946tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:**

Korporazio eta herriaren adostasunez, bientzat onak diren gauzak onartzea.

▲ **ALDE TXARRA:** Juizio batera joan beharra korporazioak nahita, ezin delako onartu norbaitek eskatzen duena.

## Olasoko San Bartolome monastegia

- Lehen aipu dokumentala 1345-8-30.ekoa da, "Villamayor de Markina", gaurko Elgoibar, sortu baino urtebete lehenagokoa. Bertan irakur daitekenez, "hamarrena" zergaren erdia Olasoko monastegiak eramaten zuen.
- 1346.eko abenduaren 20an, Alfonso XI.ak baimena eman zien aitonen seme eta nekazariei Olasoko San Bartolome monastegiaren jabetza zen landan hiri bat sortzeko, Elgoibar.
- Esan ohi da Olasotarren leinuak Olason duela sorburua, Gonzalo Yañez de Zurbanok, leinuaren sortzaileak, monastegiaren inguruan eraiki baitzuen bere dorretxea.
- Aintzinako monastegi hau Erret patronatua izan zen. Erregeek zuten, beraz, monastegiko pertsonala aukeratzeko eskubidea, bai eta "hamarrena" kobratzeko ere. 1638an Felipe IV.ak Hondarribiari eman zion oparizat monastegia, herri hark frantziarren erasoaldiaren aurrean izan zuen erantzun ausartagatik.
- Gaurregun ezagutzen dugun eliz-ataria 1459an eraiki zuen Martin Santxo arkitektoak.
- 1548an monastegia parrokia zerbitzua eskaintzen hasi zen.
- 1716ko abenduaren 29an eman zen San Bartolome parrokiaren lehen meza.
- 1717an Olasoko parroki zaharrak eta San Bartolome eliza berriak bakoitzak izango zituen betebeharrak sinatu zituzten.
- 1773an utzi zion mezak emateari Olasoko parrokiak.
- 1776.eko otsailak 16an Olaso monastegi eta parrokia ohia kanposantu bilakatu zuten.

PELLO ARRIETA



## Roke Ansola

Txistularia (1800-1911)



ARAGO

- Aurretik, Inazio Ansola Oñederrak txistua jotzen zuen. Honen argazkirik ez dago, argazkilaritza asmatu baino lehenagoko garaian bizi izan baitzen. Itziarren jaio zen 1800. urtean eta Elgoibarren hil zen 1873an.
- Argazkiko Roke, "Erroketxu", Elgoibarren jaio zen 1822ko abuztuan. Inazioaren semea eta Ansolatarren dinastiako bigarrena.
- Umetatik aitarekin jotzen zuen eta oso ospetsua zen. Bizkaiko eta Gipuzkoako herri guztietatik deitzen zioten bertako jaietan jotzeko. Konpositore bikaina izan zen.
- Behin, saskigile lanetan zegoela anaia Franciscorekin, asto baten arrantza entzun eta lana bere horretan laga zuen. Saltaka batean konposizio bat idaztera joan zen astoaren arrantzak inspirazioa ekarri baitzion. Beranduago Markinan izandako lehiaketa batean aurkeztu zuen obra, lehen saria irabazi zuelarik.
- 1911ko martxoaren 11an hil zen.



*Martxoaren 4ean hil zen PAKO JUARISTI IRIONDOren emazteak eta ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.*

## MOTZAK

### Egi harrijasotzailea DV-ETB txapelketan

San Pedro bailarako Javier Arriola harrijasotzaileak DV-ETB txapelketan parte hartuko du datorren hilaren 19an, larunbata, Arrasateko Haritza taldearekin. Javier Arriola, Egik, 100 kiloko zilindro zaharra jasoko du. Joan den astebukaeran Javier Arriolak, Fernando Zahino bizkaitarrari Leioako probalekuan irabazi egin zion, hiru minututako bi txandatan zilindro formako harriari 30 jasoaldi eta kopa formakoari 100 jasoaldi eginez.

### Mendi federatu karnetak

Morkaiko Mendizale elkarteak, federatu karnetak jasotzeko prest daudela jakinarazi nahi die karneta berri duten guztiei. Beraz, Errosario kaleko lokaletik pasa daiteke karnetak jasotzera.

### Pilota partiduak

Datorren igandean, hilak 13, Artazo txapelketako finalerdiak jokatu dituzte goizeko 11etan Sallobenteko frontoian Lendinez-Otaño bikoteak Loiola-Osororen aurka. Bakarkako partiduan, Agirrebeña eta Gabilondoren arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango da. Aurreko astean jokatuak binakako finalerdian, Armazio eta Olazarra bi tantuko aldeaz nagusitu zitzairen Osoro anaiei. Bakarkako finalerdian, Oierrek irabazi zuen Garitagoitiaren aurkako partidua.

## Isabel Ruiz:

### “Pozik nago lortu ditudan emaitzekin”

■ **Zein lasterketa korritu dituzu azken aldian?** - Duela hiru bat aste Euskadiko kros txapelketan izan nintzen eta nahiko ondo geratu nintzen, 34. postuan. Orain dela bi aste Arrateko memorial batean korritu nuen eta bostgarren sailkatu nintzen, eta nire kategorian, promesetan, hirugarren. Iaz lesio-natuta egon nintzen baina aurten pozik nago nire emaitzekin.

■ **Gogor entrenatzen duzu?** - Nahiko normal. Entrenatzaileak agintzen diguna, batzutan serieak egiten ditugu, bestetan kilometro mordo bat. Egunero entrenatzen dugu ordu t'erdiz edo bi orduz, larunbatak ezik. Igande askotan lasterketaren bat tokatzen zaigu, eta beraz, entrenatzea bezala da.

■ **Denbora asko kentzen dizu atletismoak?** - Bai, nahikoa. Ariketak egin orduko denbora asko igarotzen da eta berriketa piska bat ere egiten dugunez... Ikasketetan ere badu eraginik. Azterketetan egon naiz orain arte eta, ondorioz, entrenamenduak laga behar izan ditut.

■ **Zein distantzietan eta zein zoluz motatan zabilzta gusturago?** -Krosen 6.000 metrotan nahiko ondo ibili



naiz eta pistan, 800 metro korritzen ditut. 1500 metrotan ere ibili izan naiz baina gehienbat 800 metrotan ibiltzen naiz. Neguan distantzia jakin baterako entrenatzen dut eta pista garaia heltzean beste distantzia bat egiten dudanez, entrenamendua eta orokorrean, dena aldatu egiten da.

■ **Hurrengo lasterketa?** - Apirila arte ez gara pistan hasten. Kroseko denboraldia bukatu berri dugu eta lehendabiziko lasterketak markak egiteko izango dira. Gero Gipuzkoako txapelketan izango gara, ondoren Euskadikoan eta, marka ona eginez gero, Espainiakoan. Ni ez naiz ona eta Euskadiko txapelketara heldu izan naiz.

■ **Zer izango litzateke kirolean, benetako erronka zuretzat?**

- Egunero nor bere burua gaintitzea eta emaitza hobeak lortzen dituzula ikustea. Ez daukat helburu edo jomuga jakin bat. Kirola egitea gogoko dut eta egunero entrenatzea ere aski iruditzen zait.

- Adina: 19
- Zaletasunak: Futbola, saskibaloia, mendia eta sapatuko juergatxoak.
- Zer gorrotatzen duzu? Ezer ere.
- Amets bat: Zorinotsua izan.



★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
★ MULTIKOPISTAK  
★ FOTOKOPIADORAK  
★ PLANOEN BIRREGILEAK  
★ ERLOJU INDUSTRIALAK  
★ MARRAZKETA MATERIALA  
★ INFORMATIKA  
★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89



**oizmendi**

Tel: 74 00 16

**TABERNA**

# Herri-kirol eskola martxan hasteko prest

Elgoibarren herri-kirolak badauka uste baino jarraitzaile gehiago. Elgoibarren momentuan badira lau bat gazte kirol honetan buru belarri dabiltzanak. Zaletasuna badagolea ikusita, Pedro Mari Egaña "Mintxeta" k eta, gaur egungo herri kirolen panoraman gogor dabilen Javier Arriola "Egi" harrijasotzaile gazteak, herri kirolen eskola martxan jartzea pentsatu dute.

**O**rain arte, Javier Arriola "Egi" k, Mintxeta base-rrian entrenatzen zuen Pedro Mari Egaña "Mintxeta" ren agindupean. Mintxetako kirol instalazioko lanak bukatu eta gero, Udalak bertoko lokal bat eskaini zien entrenamenduak egiteko. Lokala ziurtatua, eskola sortzearen ideia bururatu zitzaion Egi eta Mintxetari. Mota honetako eskola bat Elgoibarren bideragarria dela irizten dio Arriola gazteak. "Elgoibarren orain momentuan, ni neu, Salegi mendarotarra, Julio eta Mintxetako gaztea gabilta, eta gazteak animatuko direla uste dut".


Eskola 14 urtetik gorakoentzat izango da, adin horretara arte gazteegi omen direlako. Haseran behintzat, harrijasotze arloa bakarrik landuko litzateke, harri mota guztiak irakatsiko lirakekeelarik. Lehendabizi, harria

nola jaso ikasi behar da, gero jasoaldi saioak egiten dira denbora neurtu gabe, eta azken urratsa, jasoaldiak neurtuta egitea izango litzateke. Teknika irakasteaz gain, korrika eta gimnasia ariketak ere lantzeko asmoa dute, "harriak jasotzeko beharrezkoa den guztia, hain zuzen". Irakasle lanetan Egaña jarduergo luke gehienbat, eta Egik laguntzaile lanak egingo litzuzke.

Eskolak, astean bi egunetan, bi orduz, funtzionatuko luke. Momentuz gimnasia egiteko tresnak bakarrik jarri dituzte eta harriak eta beharrezko materialea aurrerago eskuratuko dute.

## Dozena erdi baino gutxiago

Kopuru aldetik, herri kirolen



■ ■ Harrijasotzaile gazteak. Garai berri baten adierazle.

eskolak ez dira Euskal Herrian dozena erdira heltzen. Leioako eskolak aurrera egin zuen, Mallabiakoak, berriz, huts egin zuen eta Bergaran ere ba omen da zerbait. Egik esan digunez, "Elgoibarren zerbait ateratzea espero dugu".

Herri-kirolen eskola ia prest dago eta apirila alderako, funtzionatzen hastea espero dute.

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan. Larunbata 12

10,00: C. D. Elgoibar - Lagun Onak (Infantilak)

12,00: C. D. Elgoibar - Aloñamendi (Neskak)

16,45: Haundi - Santurtzi

### Igandea 13

10,00: S. D. Eibar - Azkuene (Kadeteak)

12,00: Eibar Urko- Txantrea (Ohorezko maila)

16,00: C. D. Elgoibar - Segura (2. errejionala)

### FUTBITOA Urasandin. Igandea 13

10,00: Chelsea - Berrogei Duro Resto del Mundo - Lanbroa

11,00: Arroak - Xirula Mimox - Pedrusko

12,00: Karkis - Kosakos Oraiko Kafe - Hunde Verboten

### PILOTA ARTAZO MEMORIALA Sallobenten. Igandea 13

11,00: Lendinez • Otaño - Loiola • Osoro

Agirrebeña - Gabilondo

### ARETO FUTBOLA KIROLDEGIAN Ostirala 11

Elgoibar A.F.T. - Aloña Mendi K.E. (1. maila)

Elgoibar A.F.T. - Pescados G.J.A. (2. maila)

## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Elgoibar 23 - Aloñamendi 18 (Kadeteak)

Elgoibar 25 - Aloñamendi 19 (Jubenilak)

Elgoibar 10 - Muskiz 13 (Neskak)

### ARETO FUTBOLA

Bar Egoki 3 - Elgoibar A.F.T. 3

C.D. Extremeño 2 - Elgoibar A.F.T. 1

### FUTBOLA

Aurrera Vitoria 1 - Haundi 0

Gazteak 0 - Elgoibar 4 (2. errejionala)

Elgoibar 2 - Urola 2 (Jubenilak)

Elgoibar 1 - Bergara 4 (Kadeteak)

Antiguo 2 - Elgoibar 3 (Infantilak)

Gure Txokoa 4 - Elgoibar 0 (Neskak)

# 1993ko KIROL



## JUDO A

**Angel Mari Albizu, 24 urte**

- Euskadiko selekzioko partaide.
- Burdeos-eko txapelketan 3.a.
- Euskadiko Sambo Txapeliduna.
- Gipuzkoako Txapeliduna.
- Euskadiko Txapeliduna.
- Eibarko Nazioarteko XXII Torneoan 2.a.
- Lisboa Nazioarteko Torneoan txapeliduna.
- Anglet (Frantzia)ko Torneoan 3.a.
- Sestuko IV Txapelketan 2.a.



## PILOTA

**Juan Inazio Ansola, 25 urte**

- Sigmako Torneoko txapeliduna.
- Deba arroko txapelketan semifinalista.
- Irun eta Usurbileko Txapelketan partehartzaile.
- Añorgako Torneoan final laurdenetaraino iritsi zen.



## TXIRRINDULARITZA

**Alexander Galarraga, 16 urte**

- Kadete mailako Euskadiko txapeliduna.
- Espainiako txapelketan 14.a.
- Zegamako txirrindulari proban 2.a.
- Segurako Txirrindulari proban 3.a.



## TRIATHLOIA

**Iñaki Konde, 42 urte**

- Euskadiko triatloia C mailan burutu zuen. (3.800 igeri, 130 bizikletaz eta 30 korrika)
- Duatloian Euskadiko zirkuitoa hirugarrena bukatu zuen. (A mailan : 40-50 urte bitartean).



## ESKUBALOIA

**Alazne Rementeria, 27 urte**

- 10. urtea Arrate Amaña ekipokoan jokutzen.
- 1. dibisioan jokatu eta iguera fasea jokatu zuten Molins del Rey (Kalaluña) eta Eibarren.



## ATLETISMOA

**Karmen Perea, 18 urte**

- Pista estalia: Brontzezko domina Espainiako Junior txapelketan.
- Krosa: 8.a Euskadiko txapelketan.
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun absolutua.
- Markak: 800 m. 2.15.41  
1.500 m. 4.48.73



## EHIZA

**Patxi Arriola, 29 urte**

- Gipuzkoako Oilagorren txapelketan txapeliduna.
- Espainiako oilagorren txapelketan laugarrena.



## FUTBOLA

**Joseba Etxeberria, 16 urte**

- Euskadiko selekzioa (SUB-17):  
Madrid 3 - Euskadi 3 (2 gol)  
Euskadi 5 - La Rioja - 1 (2 gol)
- Espainiako selekzioa (SUB 16):  
Suecia 1 - Espainia 2 (gol 1)  
Espainia 5 - Israel 1 (gol 1)
- Errealeko jubeniletan jokalaria.(16 gol).

**BARREN** Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzaz 1993ko Elgoibarko kirolari onena aukeratzen ari da. Berau aukeratzeko izen hauek proposatu dizkigute Elgoibarko Kirol elkarteek. Zuek aukeratu duzue onena eta bidali erantzuna **BARRENERA**.

Erantzuten duzuenon artean **ARTEGI** elektratresna dendak emandako

**SONY VHS BIDEO EDER BAT** zozketatuko dugu.



# OLARI ONENA



## ARETO FUTBOLA

**Cesar Arriola, 29 urte**  
 • 92-93 Futbol Areto txapelketan jokalaria onena aukeratu zuten beste ekipoetako entrenatzaileek partiduz partidu ematen dituzten puntuaketaren arabera.



## IGERIKETA

**Judith Ajubita, 13 urte**  
 • Lehen postua Eibarren, 400m. krolean  
 • Lehen postua Azpeitin, 100m. krol eta estiloetan.  
 • Lehen postua Oñatin 200 m. krolean.  
 • Lehen postua Legazpin 100 m. krolean. 1993. urtean marka pertsonal guztiak hautsi ditu.




## HERRI KIROLAK

**Harrijasotzailea**  
**Javier Arriola, 20 urte**  
 • 21 urteik beherakoetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna.  
 • Adin librean: Bigarren mailako txapelduna eta Euskadiko bigarrena.  
 • Elgoibarren 105 jasoaldiko marka 3 jasoaldigatik hobetzea lortu zuen.



## KARATEA

**Josu Duran, 10 urte**  
 • Lehen postua Azkoitin jokaturako probintzia arteko txapelketan.  
 • Lehen postua bi aldiz Markinan jokaturako probintzia arteko txapelketan.  
 • Parte hartu duen txapelketa guztietan lehen postuan geratu da.



## MENDIA

**Pablo Barrenetxea, 25 urte**  
**Aitor Esnaola, 24 urte.**  
 • Nanga Parbat espedizioan parte hartu zuten 8.000 metrotik gorako mendia egin zuten lehen elgoibartarrak izan zirelarik.

## ORAIN ARTEKO SAILKAPENA

1. Josu Duran (91 botu)
2. Anjel Mari Albizu (84 botu)
3. Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola (74 botu)
4. Karmen Perea (49 botu)
5. Alexander Galarraga (38 botu)

## ARTEGI



Erantzuten duzenon artean

# SONY

VHS BIDEO BAT zozketatuko dugu.

ZEIN DA 93ko KIROLARI ONENA? .....

IZEN ABIZENAK .....

HELBIDEA .....Tel.....

## Pako Juaristi: euskara, dantza eta antzerki munduko elgoibartarra

Orain astebete joan berri zaigun Pako Juaristiren irudia isladatu nahi izan dugu BARREneko txoko honetan. Euskararen alde hainbat lan egin zuen elgoibartar hau antzerki eta dantza munduan ere aritu izan zen. Bere alarguna den Miren Vallejo, Manuel Rementeria eta Itziar Ajuriak euren oroitzapenak, Pakorekin biziriko une ezberdinak kontatu dizkigute.

### EUSKARA

*“Nik, Pakori zor diot andereño izatia, estraine-koz aitxatu ziana bera izan zan eta.” Itziar Ajuria.*

Ikastolarik ez zegoen garai hartan, euskal liburu gutxi eta kalean euskaraz berba egitea debekatua zegoen. Halere, Pako Juaristi lagun batzuekin elkartu zen eta Elgoibarko lehen alfabetatze ikastaroa antolatu zuten. Gabi jate-txearen goiko etxean kokatu zuten beraien egoitza. Bertan euskaraz idazten, irakurtzen eta hitzegiten irakasten zuten. Liburu gutxi batzu erabiltzen zituzten, euskal abestiak kantatzen. Baina, batez ere, “bihotzez sentitu eta bihotzez erakutsi”, horixe zen Pakoren ahotan entzun zitekeen esaldia. Eurek eman zuten lehen pausoa, gero gau-eskolak hasi ziren eta, denborarekin, ikastola ere sortu zen.

### DANTZA

*“Oin sueltuan danak berdin eitxen dabe. Pako eta bixok gure kontura, gure erara ikasi gendun. Orduan halaxe eitxen zan.” Miren Vallejo.*

Domekero erromeria egoten zen Foruen enparantzan. Han biltzen ziren herriko neska-mutil guztiak eta nagusiei begiratu, hankak arin-arin mugitu eta besoak gora altxatuz, ikasten zituzten dantza herrikoiak. Fandangoa eta arin-arina horrela ikasi zituen Pako Juaristik. Miren Vallejorekin bikote aparta osatu zuen eta biek inguruko herrietako hainbat lehiaketetan parte hartu zuten, “titiriteroak modukuak ginan, gure dantzak herriz-herri erakusten”. Euren estilo bereziarekin hainbat sari irabazi zituzten. Lehiaketa ezberdinetan parte hartzeaz gain, epaimahaikide ere izan zen Pako.

Euskal dantza hauek ezezik, bestelako dantzak ere gustatzen zitzaizkion. Horien artean bereziki tangoa maite zuen, abestea eta dantzatzea. “Caminito” bezelako piezak ederki asko dantzatzen zituen. Mirenek esan digunez, “nahixao zaban tangua balsa edo pasodoblía baino, pauso ezberdinak tartekatzeo aukera ematen duelako.”



■ ■ 1980an antzeztu zuten Euskal Ezkontzan Pako eta Miren Alkatea eta bere emaztea izan ziren.

### ANTZERKIA

*“Beti benefizientzi helburuekin eta afizio handiz. Bihotzean zerman Pakok antzerkia.” Manuel Rementeria.*

Familia batek diru beharra zeukala edo Parrokiarako lanpara bat lortzeko, arrazoia gutxienekoa zen. Pako beti agertzen zen denei laguntzeko prest. Antzerkiak, behar zutenetzat ahal zena ateratzeko helburuarekin antolatzen ziren.

Gazteleaz ere, baina euskaraz egin zituzten antzerki gehienak. Hara hona ibiltzen ziren, herrietako plaza eta antzo-

kiak beteaz. “Aitona eta biloba” obrarekin Bilbora joan ziren, Arriaga antzokian aritu zirelarik. Sarre-rak agortu ziren egun hartan, izugarritzko arrakasta izan zutelarik.

Aktore, zuzendari eta antolaketa lanetan ibili zen Pako. “Mi chica”, “Ramontxu” edo “El Caserio” obrak bati baino gehiagori egingo zaizkie ezagunak. Hil baino bi hilabete lehenago Donostiako Idiakez Zaharren Biltokiko antzerki taldean izen eman zuen.

Antzerkia, dantza eta euskera zainetan eta bihotzean zituen Pako Juaristik.

# Haritz Dantza taldea Parisen

Larunbatean, hilak 12, Pariseko "Campos Eliseos" teatroan izango da Elgoibarko Haritz Dantzari taldea, Juan Antonio Urbeltz-ek zuzenduriko Alakiketan saioa antzezten. Dantzari eta txistulari elgoibartarrak, Donostiako Argia, Añorgako Arkaitz, eta Iparraldeko Lapurtarrek batera arituko dira.



■ ■ Haritzekoek atzerrira joateko aukera izan dute Alakiketan saioari esker.

**U**dal Txistulari taldea eta *Haritz* Dantzari taldea hilaren 11an, ostiral goizean abiatuko dira Pariserantz, igandean berriro herriratzeko asmoz. Larunbatean, arratsaldeko 8,30etan, Europako teatrorik garrantzitsuenetako batean, Parisekoan alegia, antzeztuko dute euskal dantzen Alakiketan ikuskizuna.

## Aparteko ikuskizuna

Horrenbesteko arrakasta eduki duen ikuskizun honek 1988. urteko udaran eman zituen lehen urratsak. Frantziako Con-

folens-eko Nazioarteko jaialdiko zuzendaritzak luzatutako gonbidapenari esker, Juan Antonio Urbeltzi Alakiketan ikuskizuna antolatzea otu zitzaion. Horretarako bere taldeaz gain, Argia Euskal Dantzari taldeko dantzari-eriaz gain, Añorgako Arkaitz, iparraldeko

Lapurtarrak eta Haritz taldeko dantzarien laguntza eskatu zuen. Harrez geroztik antzeztoki eta herrialde asko eta asko ezagutu dituzte dantzari esker. Euskal Herri osoko antzoki garrantzitsuenetan taularatu dute ikuskizuna, BBC eta ETB telebista kateentzat ere grabazioak

egin dituzte eta, duela lau urte, EEBBetan izan ziren.

Iaz, Anoetako inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten eta aurtengo urtarrilean, Sabino Arana Fundazioaren proposamenaz, Bilboko La Casilla kiroldegian burutu zuten Bosniaren aldeko saioan, bost milioi pezeta jaso ziren.

Elgoibarren burutzen dituzten saioez eta Alakiketan ikuskizunaz aparte, Zortziko izenekoan ere parte hartzen dute eta Euskal Herriko herri gehienetan dantzatzen dute.

**Elgoibarko Haritz Dantzari taldeak Euskal Herriko eta atzerriko hainbat herrialde zeharkatu ditu Alakiketan izeneko euskal dantzen saioarekin. Asteburu honetan Parisen izango dira.**



**BATAIO  
ETA  
JAUNARTZE  
JANTZIETAN  
ESPEZIALISTAK**

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

**Fotero**

**OKINDEGIÀ**

**OPILEDGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**ARMUETA**

Baserriko haragietan berezia 

**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

## Psikosia, kafea eta histeria, esperantza bako auzitegietan

**A**LERTA GORRIA!!! Badatoz, badatoz... paper toneladak, kafe garrafoiak, amets gaiztoak, begizuloak, ukalondo urratuak,... IKASLEON AZKEN AUZIA DA!

Goizeko 8:30ak: eguzkiaren lehen printzek argitzen dituzte auzitegirantz doazenen aurpegi zurbilak. Goizeko 4etan esnatu dituzten txirrinen zaratak oraindik ere buruan dituztelarik inertziak bultzaturik badoaz...

Goizeko 8:45ak: liburutegia gainezka, liburu eta paper artean galtzen diren aurpegiak, esperantza bako lerroetan zalantza metodikoak, zalantza existentzialekin nahasten dira, erlojuaren orratz geldituz ezinezko pre-saz bultzatzen zaituzten bitartean. Litroka irentsitako kafeak irekiten darrai zuen barru asaldatueta... aurpegi nekatuen barrea ageri da, kafeinazko malko garratzen ordainetan...

Goizeko 8:59ak: pasiloak gainezka, auzitegiko sigmentuek dardar egiten dute epaituak izango direnen belaun dardartien azpian.

Zigarroen ke andanek S.O.S hizkiak osatzen dituzte pasilu amaigabeetan zehar, baina inork ez ditu hitz horiek ikusten... eta... BADATOR, BADATOR! 10 bat ordu lo egindako aurpegia, irrifarre maltzurra, begi disdira-tsuak... ke andanek jada ez dute seinalerik marrazten ezerezean.

Epaile gorenak bere mailuaz gogor jo du mahaia: "isilik, mesedez! ezer daitezela akusatuak, epaiketa hastera doa!"

### UBIko ikasleak



## Zein da zure pultsazioa azterketa garaian?



**Nora Agirrezabala, 18 urte**  
"200ekoa. Urduri. Azkeneko mementurako uzten dugu dena. Itota gogo."

**Eli Goenaga, 17 urte**

"Ez dago eskubiderik lau egunian zortzi azterketa egiteko. Denbora gehiago izan behar du gendun gauzak prestatzeko."



**Soraia Urbieta, 17 urte**

"300ekoa. Lan asko eitxeko eta gogo gutxi. Badakizu, azken momentuko estuasunak. Kamioi bat ekarri behar du kalabazak eramateko."

## Etxebizitzak

ETXE BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno Kalean.  
☎ 74 08 09 (3,30-7,30)

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.  
☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Alzolan izan.  
☎ 19 29 31

PISU BAT SALGAI dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.  
☎ 74 34 03 - 74 09 56

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAn. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gaez 19,30etatik aurrera.  
☎ 74 04 59

ETXE BAT SALGAI daukat SANTA KLARA 24an.  
☎ 74 40 52  
(Ofizina orduetan)

BASERRI BAT HARTUKo genuke  
☎ 76 62 64 Imanol

PISU BAT SALGAI. UBITARTE 11. zenbakian.  
☎ 74 12 07 Iñaki - Mertxe

ETXEBARRIN ETXEBIZITZA berri bat dago SALGAI. 87 m2. Sukaldea, 3 logela, egongela bat, 2 bainu gela, ganbara, terraza eta garajea.  
☎ (943) 70 12 71

## Lana

31 urteko neska bat naiz eta etxeke lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.  
☎ 17 17 40.

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00  
☎ 74 22 77 Iratxe

Kontabilitate matematika, nominak eta seguritate soziala, administraritzako praktikak eta kosteetako kontabilitate KLASEAK EMATEN dira edozein mailatan. Esperientzia zabala..  
☎ 74 21 65 Javi

Hiru neska gara eta astebukaeretan UMEAK ZAINTZEKO PREST gaude.  
☎ 74 05 36/74 08 46  
(Gaez)

## Salerosketak

ADI!! RENAULT 19 CHAMADE 16V. SS AK BAT SALTZEN dut. Prezio oso ona. BIKAINA. (Bazkal eta afal orduetan deitu)  
☎ 74 23 64

ARTZAI TXAKURRAK SALGAI ditut. Bi hilabete dituzte.  
☎ 74 33 76 (Ainhoa)

GARAJE BAT ALOKATZEN dut. Santa Ana 2an.  
☎ 74 32 48 (Ana)

Trikitixa jotzeko SOINU TXIKI BAT daukat saltzeko.  
☎ 74 11 29  
(Ofizina orduetan)

GITARRA ELEKTRIKO BAT SALGAI. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin. (Arratsaldez ofizina orduetan)  
☎ 74 02 36

ARROPA SEKADORA - ZENTRIFUGADORA bat SALTZEN dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 ptan.  
☎ 74 19 81 (Ana Mari)

San Antolin auzoan LOKAL BAT ALOKATZEKO DAUKAT. Taberna ondoan.  
☎ 74 17 95


EKONOMIKA BAT SALTZEN dugu. Berria. Deitu lanordutan.  
☎ 74 16 38 Ainhoa

## Bestelakoak

Karitasek LO EGITEKO ZAKU BAT BEHAR du.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala..756264  
Drogomenpekotasun Z..741008  
Odol Emailak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....742158  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua ...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Corro Español.....74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....

Atal honetako iragarkiak dohainik dira.

Telefonoz edo bertara ekarrita eman diezagukezu zure mezua.



**74 41 12**

# ASTEAN ZEHAR

## 11 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Tango-La mate porque era mía"

P. Laconte. Frantzia. 1993

Aktoreak: P. Moiret, Miou-Miou.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba

## 12 LARUNBATA

09,30 ZUHAITZ EGUNA

✓ Mintxetan.

12,00 MANOS UNIDAS-EN  
ARGAZKI ERAKUSKETA

Izenburua: "Asia Gaur"

✓ Kultur Etxean.

Antolatzailea: Manos Unidas.

Hilaren 14ra arte.

## 13 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

"Tango-La mate porque era mía"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 14 ASTELEHENA

20,30 ANDRAIZE EMAKUME  
TALDEAREN BILERA

✓ Kultur Etxean.

22,15 ZINEA

"Tango-La mate porque era mía"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 15 ASTEARTEA

19,00 MALTZAGA-URBINARI  
BURUZKO HITZALDIA

Hizlariak: Elgoibarko HBko  
zinegotziak.

✓ Kultur Etxean.

Antolatzailea: Elgoibarko HB.

## 17 OSTEGUNA

19,00 MAHAINGURUA

Gaia: Sexu diskriminazioa

Moderatzailea: Itziar Fernandez.

Partaideak: Nati Garitano, Pilar  
Larrañaga, Ana Artetxe, Eduardo  
Osoro, Iñaki Elustondo eta Luis  
Bilbao.

✓ Kultur Etxean.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

## 18 OSTIRALA

18,35 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan. (P.M.  
Urruzuno 8).

22,00 BERPIZKUNDE GARAICO  
MUSIKA KONTZERTUA

Partaideak: Itxaropena abesbatza,  
Xabier Dominguez, J.R. Ullibarri  
eta J.L. Francesena.

✓ San Bartolome Parrokian.

Antolatzailea: Musika eta Dantza  
Fundazioa.

22,15 ZINEA

"Tango-La mate porque era mía"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

# txandak

### FARMAZIAK:

12, larunbata: Etxeberria

13, igandea: Etxeberria

14, astelehena: Ormazabal

15, asteartea: Ormazabal

16, asteazkena: Ormazabal

17, osteguna: Ormazabal

18, ostirala: Yudego

### OKINDEGIA:

13, igandea: EIZAGIRRE

# ZINEA

### TANGO "La mate porque era mía"

Komedia pikareskoa, gizonetzkoen  
maitasunaren ikuspuntutik  
fideltasuna, zeloak eta gizonetzko  
eta emakumezkoaren arteko  
harremana azaltzen dituen.  
Paulen emazteak laga egiten du,  
senarreran maitasun abenturez  
kokoteraino eginda. Paulen  
osabak, ematzea akabatzea  
gomendatzen dio, eta gaia ederki  
menperatzen duen esperto baten  
laguntza lortuko du.  
Bikotearen harremani buruzko  
hausnarketa interesgarria  
eskaintzen du, egoera eta  
pertsonea irrealak aurkeztuz.

# ZINEA



Salvador Celaya  
ITURGINTZA  
BILTEGI ETA BAINUGINTZA  
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK  
Errosario 22. Tel: 74 04 94



Lizzy  
Errosario, 25 - 74 23 02  
GAZTEENTZAKO  
MODA

# COLEGIO EL PILAR -ELGOIBAR



*Duela 25 urte  
eta gaur egun ere, hezkuntzan lanean.*



# PILAR IKASTETXEA -ELGOIBAR

# Elgoibarko HERRI ESKOLA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta O.H.O.



## ZERBITZUAK

- **JANGELA APARTA:** Bertan prestaturiko jakiak. Subentzionatua. Menu egokia eta merkeak.
- **DOAKO GARRAIOA** INGURU GUZTIENTATIK.
- **PEDAGOGI** AHOLKULARITZA (Eibarko P.A.T.)

## ESKEINTZA:

- **Murgiltze plana:** D Hizkuntza Eredua
- **Gela bereziak:** 2 urteko haurren gela, informatika, laborategia, ikusentzunezkoa, hizkuntza laborategia, liburutegia, gimnasioa, plastika, heziketa berezia.
- **Ingelesa 3. mailatik gora.**
- **Gelaz kanpoko ekitaldiak:** Aterpeak, Baratze ingurugiro Hezkuntza zentroa, Pagoetako parkea, bestelako irteerak.
- **Eraikuntza moderno eta leku egokian kokatua:** Jolastoki ederrak eta ongi gordeak.

**AURRE MATRIKULA EPEA**  
**Martxoaren 1etik 15era**

